

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

6/2022 Mozioa, urtarrilaren 26koa, Arabako Lurralde Historikoan energia berriztagarria sortzeari buruz, eta goi tentsioko eta distantzia luzeko sareei buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko urtarrilaren 26an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

6/2022 Mozioa, urtarrilaren 26koa, Arabako Lurralde Historikoan energia berriztagarria sortzeari buruz, eta goi tentsioko eta distantzia luzeko sareei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek apustu irmoa egiten dute Arabako Lurralde Historikoan jatorri berriztagarriko energia sortzearen alde, bai eredu intentsiboan bai era banatuan.

2. Arabako Batzar Nagusiek energia berriztagarria azken kontsumoa egiten den lekutik hurbilen sortzearen alde egiten dute.

3. Arabako Batzar Nagusiek instituzio eskudunei eskatzen diete indartu ditzatela Arabako ebakuazio-puntu eta banaketa-sare lokalak, hala, gure lurraldean aurreikusita dauden proiektuetan sortutako energia berriztagarria ebakuatzea ahalbidetzeko.

4. Arabako Batzar Nagusiek instituzio eskudunei eskatzen diete behin-behineko proposamen bat egin dezatela, Red Eléctrica de Españak egindako epe luzeko plangintzan jasota ez dauden goi tentsioko eta distantzia luzeko sare horiei dagokienez. Proposamen horretan alternatibak aztertuko dira eta proiektatutako lineen ezarpen antolatu eta arrazoizko bat sustatuko da, izan linea horiek jabetza pribatukoak edo izan jabetza publikokoak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 26a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA